

# Oliveri: «EHUren erreforman Unibertsitateak eta gizarte osoak hartu behar dute parte»

Irakasle kontratadunek erabilitako «koakzioa» gaitzetsi du Hezkuntza sailburuak

**E**uskal Herriko Unibertsitatearen erreforma aurrera eramateko, akordio unibertsitarioa ezinbestekoa dela adierazi du Inazio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta EAko idazkari orokorrak. Bere ustez, Eusko Jaurlaritzak izan beharko luke akordioaren bultzatzailea.

**DONOSTIA**

Akordioa egiterakoan Unibertsitateko sektore guztiak eta gizarte osoak hartu behar dutela parte esan dio Oliverik Vasco Pressi elkarrizketa batean. Bigarren unibertsitate publikoa edo Goi Mailako Zentru Teknologikoa sortu aurretik, etorkizunean gizarteak beharko dituen profesionalen eskaintza zerbaterainokoa den jakin baharra dago Oliveriren ustez.

Ikasturte honetan Unibertsitateak jasandako arazokiko Hezkuntza Sailak mantendu duen aldentasunari erantzunez zera dio Oliverik, «Jaurlaritzak argi dauka zer den autonomia unibertsitaria. Hezkuntzaren



Inazio Oliveri Hezkuntza sailburua.

OIALDE

arlo guztiak gure menpe dauden arren, Unibertsitatearengan ez daukagu ardurarik. Unibertsitatea autonomoa da legeak hala nahi duelako, eta Unibertsitateko arloetan azken hitza dutenak Unibertsitateko Gobernu organuak dira. Kontseilu Sozialak, klausuroak, Gobernu Juntak eta errektoreak berak kompetentzia

zabalak dituzte eta Jaurlaritzak errespetatu egiten ditu kompetentzia horiek. Beraz, Unibertsitateak berak konpondu behar ditu arazoak».

## IRAKASLEEN JARRERAREN AURKA

Irakasle kontratadunek beren «eskubideen defentsan» erabilitako metodo batzuen

aurka agertu zen Oliveri. Ezin da «koakzioa» erabili ikasturte honetako une batzuetan irakasleek egin duten bezala, eta gizarte eta Unibertsitateak babesteko irakasleek ikasleak «erabili izana» gaitzetsi du. «Erabilitako metodoek min egin digute guztioi, baina batez ere kalte-tuei» gaineratu du elkarrizketan.

«Arazoak izaera juridikoa du. Juridikoki arazoa konpondua legoke lasterrera kaleratuko diren epaiek, Auzitegi Gorenak kaleratu berri duen epaian erabilitako eskubidearen ezaugarri berak kontutan izaten badituzte, logikoena hauxe da gainera. Beren egoera legeak ezarritako biderei jarraituz soilik konpon daitekeela onartu behar dute irakasleek» esan du Oliverik.

Irakasle kontratadunen arabera, arazoa konpondua legoke Unibertsitatearen autonomiaz baliatuz lan kontratua ezarri gero. Gobernu hirukoitzaren jarrera nazionalismoarekiko intentsiblea ote den galde-tzean, Oliverik horrelakorik ezin dela esan erantzun du: «Etxenike kontseilari zen garaian Jaurlaritzak bakarrik errekurritu zuelako LRU legea Auzitegi Konstituzionalaren aurrean», eta inolako kompetentziei ez dietela uko egiten gaineratu du.

## Ikasleen jarrera azpimarratu dute EHUko irakasle kontratadunek

I.E. /BILBO

Ikasle gehienek jarrera duina azpimarratu dute ekainean azterketarik egin ez zuten irakasle kontratadunek atzo igorritako oharrean, «uko egin bait zioten behartu nahi zituen autoritarismo polizialaren aurrean, burua makurtzeari». Honez gain, Ertzaintzaren eta Seguritateko Goardien kopuru itzela zela eta, Unibertsitatean bizi zen bortxakeria giroa salatu dute, CCOOeko irakasleek jokaturako paperarekin batera. Epaimahaietako kide zenbait Fakultate honetakoa ez zela ere azpimarratzen da oharrean.

Dekanotzatik behin eta berriro errepikatu da, deialdiak egiteko eskuduntza ez dela Departamentuena baizik eta Dekanotzaren eskubidea dela, aktak sinatzeko bezala. Lopez Basoaran Dekanotzako idazkariak, berriz, hainbeste seguritateko goardia egoteko arrazoiak badaezpadako neurriak hartzea zela adierazi zuen, «inoiz ezin bait duzu jakin kontratadunek zer egingo duten». Bihar berriro ekingo zaie azterketa hauei.

## Loteria Nazionalaren 474 milioi pezeta jaso ziren Zentronikon

**IRUNEA**

Atzo Madrilan izan zen Loteria Nazionalaren lehendabiziko saria eta dezimoarentzako sari berezia jaso ziren Zentronikon eta 474 milioi pezeta banatu zituzten bat zenbakidun loteria administrazioak eta bertako 'Avenida' tabernan saldu ziren dezimoek. Lehendabiziko saria 99.734 zenbakiak jaso zuen eta sei serie aipatu bi tokietan saldu ziren.

Juana Fernandez eta bere bi ilobak dira saria saldu zuen Loteria Administrazioaren jabeak, Ligues kalean dagoena, eta jendearen artean 'La Pava' izenekoa. Zenbakiaren dezimoak taberna eta administrazioaren artean saldu zituztela kausa, saria eta dirua oso banatuta zegoen bi lokal

bezeroen artean. Dezimoarentzako Sari berezia, bestalde, zenbaki beraren zortzigarren seriearen hirugarren frakzioarentzako izan zen, Zentronikon bertan saldu zena. Horrela, 250 milioi pezeta banatu zituen sari honek, berri hau osatzerakoan jaso zutenak oraindik ezagutzen ez baziren ere. Hala ere, azpimarratzekoa da oso banatuta dagoela dirua. Hau ez da herri honek jasotzen duen Loteria Nazionalaren lehendabiziko saria, irailean ospatzen diren bertako festetan hurbilketa bat ere lortu bait zuen herriko administrazio batek 1989. urtean. Berria jaso bezain laster, kalera atera ziren lau mila eta bostehun biztanle inguruko herri honen biztanle franko, hain banatuta egoteak itxaropen handiak sortu bait zituen jende askorengan.

## Hirugarren Adinekoentzako subentzionatutako termalismo egonaldiak. 1991ko udazkena

ESKAERAK ABUZTUAREN 1etik AURRERA.

BALDINTZAK

- 65 urte baino zaharrago edo 60 urtetik gorako pentsioduna izatea eta hauen ezkonkideak.
- Gipuzkoako Herrialde Historikoan bizitzea.

TXANDAK

- **Zestoako Balnearioa**  
Urriaren 1etik Abenduaren 15era (hamabost egunero).
- **Errioxako Arnedilloko Balnearioa**  
Irailaren 15etik 29ra.  
Azaroaren 15etik 29ra.  
Azaroaren 29tik Abenduaren 13ra.
- **Nafarroako Fiteroko Balnearioa**  
Urriaren 31tik Azaroaren 14ra.  
Azaroaren 14etik 28ra.

Egonlekuak mugatuak dira. Pentsio osoko ostatua. Tratamendu hidrotermalak. Medikuek espezialistak.

Informazio gehiago nahi izanez gero eta eskaerak aurkezteko Foru Aldundiaren ondoko zentruetara zuzendu behar da:

- Ondoko pentsionista egoitzetan:
  - Luis Mariano kalea, z/g. IRUN. Tel. 62 64 66
  - Olibet Auzoa. RENTERIA. Tel. 52 28 50
  - Alkabita kalea, z/g. BERGARA. Tel. 76 21 40
  - Luis Aldasoro kalea. LEGAZPIA. Tel. 73 12 76
  - Pza. Eusebio Gurrutxaga. ZUMAIA. Tel. 86 17 00
- Ondoko zaharren etxeetan:
  - Arrate Errep. z/g. EIBAR. Tel. 70 24 50
  - Euskalerrria Pza., 1. TOLOSA. Tel. 65 06 25
- Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Departamentuko Informazio Bulegoan:
  - Santa Catalina kalea, 3. DONOSTIA. Tel. 42 96 19



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Zerbitzu Departamentua



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**Fisioterapeutak eta hezkuntza bereziko laguntzaileak  
ORDEZKAPENAK**

Hezkuntza berezian ordezkapenak egiteko onartuak izan diren izangaien behin-betiko zerrenda Hezkuntzako Lurralde Ordezkari-tzetan jarrita egongo da datorren ostegunetik, abuztuak 1, aurrera.

Gasteiz, 1991ko uztailaren 24ean  
**PERTSONAL GESTIORAKO ZUZENDARIA**  
Pablo Larrauri Altonaga